

## **BERMEOKO HERRI BABESA TALDEA BERRIRO AKTIBATU DA, BAINA BOLUNTARIOAK BEHAR DITU**

Boluntarioez osatutako Bermeoko Herri Babesa urte bete inguru desaktibatuta egon ondoren, berriro aktibatuta da; baina taldea mantentzeko ezinbestekoa da boluntario berriak bilatzea, adierazi du Benito Ibarrolazak, Bermeoko alkateorde eta Zerbitzu eta Udaltzaingo buruak. Ildo horretan, Ibarrolazak Herri Babesak egiten duen lan garrantzitsua goraipatu du. Esate baterako, adierazi duenez, maiatzaren 26an Aurrekoetxea kalean gertatutako sutean, Herri Babesaren lana ezinbestekoa izan zen sua kontrolatzeko eta gehiago ez zabaltzeko, suhiltzaileak heldu baino lehen.

“Beraz, zalantza barik, Herri Babesaren lana gure herrian gerta daitezkeen egoera larriei (suteak, uholdeak, elurra, errepideetan arazo ezberdinak...) aurre egiteko ezinbestekoa da eta horretarako beharrezkoa da Herri Babesak talde trinkoa izatea”, azaldu du Ibarrolazak. Horregatik, interesa duten herritarrei talde honetan parte hartzera dei egin die.

Jon Ojangurenak, Herri Babesako koordinatzaileak, azaldu duenez, besteak beste, “suhiltzaile boluntarioak gara Bermeok ez duelako suhiltzaile-talderik herrian; herriko ekimen guztietan (jai, kirol, kultur ekimenak...) parte hartzen dugu segurtasuna eta prebentzioa bermatuz; bai Bermeon zein inguruko herrietan jende asko bilduko dituen ekimenetan segurtasun arloko aholkularitza eskaintzen dugu; eta uholde eta elurrak daudenean ere egoera hauek aurre egiteko eta arriskuak ekiditzeko lan egiten dugu”.

“Lan horiek eta beste asko egiteko suhiltzaileen kamioi bat dugu, lur orotarako ibilgailu bat, erremolkea, motozerrak, ura ateratzeko bonbak, eskalatzeko materiala, autobonbak, Atalden bi lokal...”, azaldu du.

Horrez gain, boluntarioei formazioa eskaintzen zaiela adierazi dute Ojangurenak eta Ibarrolazak. “Boluntario moduan datozenek sute, uholde... eta horrelakoetan nola jardun behar den erakusten da, nola jardun salbamendu txakurrekin, eskalada edo biktimak nola atendidu, baita ere erreka, zuhaitzen mozketak... eta beste gai askoren inguruko formazioa eskaintzen da”, esan dute. “Hortaz, boluntarioek gai ezberdinei buruzko formazioa jaso ahal izango dute”, gaineratu dute.

### **Baldintzak**

Herri Babeseko boluntarioa izateko bi baldintza bakarrik bete behar dira: 18 urtetik gora izatea eta Bermeon bizitzea. “Herri Babesak egiten duen lana oso garrantzitsua eta interesgarria da, horregatik gogoia duten herritar guztiei Herri Babesako parte izatera animatzen diegu, izan ere, gure herriaren alde lan egiteko aukera paregabea eskaintzen du talde honek”, esan du Ibarrolazak. “Polita izango litzateke lagun koadrilak ere izena ematea boluntario izateko”, gaineratu du.

Bermeoko alkateordeak gogoratu duenez, Bermeoko Herri Babesak 2013. urtean XVII. Hegaluze Saria jaso zuen “herriaren alde lan boluntarioa eta isila egiteagatik”. Epaimahaiak adierazi zuenez, “Herri Babesa beti egon da



presente herriak behar izan duenean, herriari laguntzen eta bere alde lan egiten. Eredu bat dira Bermeo eta bermeotarrentzat”.

Ojangurenak boluntarioa izatea esperientzia oso “aberasgarria” dela nabarmendu du. “Garrantzitsua da denok herriaren alde lan egitea herri hobeko bat izateko eta hori posible da”, esan dute. “Gainera adiskidetasuna, lan taldeko lana eta hainbat arlotan formazioa eta esperientzia handia hartzeko bide bat ere bada”, gaineratu dute.

Ibarrolazak eta Herri Babeseko kideak herritarrek animatu dituzte Herri Babeseko boluntario izatera “gauza asko ikasteko, herriaren alde lan egiteko eta esperientzia guztiz positiboak bizitzeko aukera izango baitituzte”. Hortaz, interesa duten herritarrek Berhaz bulegoan (Ertzilia 6-8) eman behar dute izena.

## **EL GRUPO DE PROTECCION CIVIL DE BERMEO SE HA REACTIVADO PERO NECESITA VOLUNTARIOS**

El grupo de Protección Civil de Bermeo, que ha estado desactivado aproximadamente un año, se ha vuelto a activar, si bien necesita nuevas personas voluntarias para poder mantener el grupo, según ha manifestado Benito Ibarrolaza, teniente de alcalde de Bermeo y responsable de Servicios y Policía Municipal.

Ibarrolaza ha ensalzado la “importante” labor que realiza Protección Civil en Bermeo y, como ejemplo, ha señalado que en el incendio del pasado 26 de mayo en la calle Aurrekoetxea el trabajo de Herri Babesa “fue indispensable para controlar el fuego y que éste no se extendiera, antes de que llegasen los bomberos”.

Por lo tanto, según ha dicho, “la labor de Protección civil en nuestro municipio es indispensable para poder hacer frente a diferentes situaciones (incendios, inundaciones, nieve, problemas en las carreteras...)” y, para ello, “es necesario que Herri Babesa tenga un grupo fijo”. De esta manera, Ibarrolaza ha realizado un llamamiento a las personas interesadas a formar parte de este grupo.

El coordinador de Herri Babesa, Jon Ojanguren, ha explicado las diferentes labores de Protección civil y, entre otros aspectos, ha indicado que “somos bomberos voluntarios porque Bermeo no tiene un retén de bomberos propio; participamos en todos los eventos del municipio (festivos, deportivos, culturales, sociales...) para garantizar la seguridad y prevención; ofrecemos asesoramiento en materia de seguridad en eventos multitudinarios tanto en Bermeo como en otros municipios de alrededores, y también trabajamos para prevenir riesgos y hacer frente en situaciones de inundaciones o nieve, entre otros muchos”.

Para llevar a cabo estas labores, según han dicho, Protección Civil de Bermeo, dispone, entre otros, de un camión de bomberos, de un todoterreno ligero, remolques, moto sierras, bombas para achicar agua, material de escalada, autobombas y dos locales en Atalde”.



Asimismo, ha señalado que a las personas voluntarias que se incorporan a Herri Babesa se les ofrece formación “sobre cómo actuar ante un incendio, inundaciones... también se ofrece formación en escalada, utilización de perros de rescate, tala de árboles y sobre cómo atender a las víctimas, entre otros”. “Por lo tanto, las y los voluntarios reciben formación sobre diferentes aspectos”, ha añadido.

## Requisitos

Para ser voluntario o voluntaria solamente hay que cumplir dos requisitos: ser mayor de 18 años y vivir en Bermeo. “La labor que realiza Protección Civil y el voluntariado es muy importante e interesante, por ello animamos a las y los bermeanos que tengan ganas a sumarse a Herri Babesa, ya que es un grupo que ofrece una magnífica oportunidad para trabajar a favor del pueblo”, ha destacado Ibarrolaza. “Sería también bonito que cuadrillas de amigos y amigas se sumaran a Herri Babesa”, ha añadido.

En esta línea, el teniente de alcalde ha recordado que Protección Civil recibió el año 2013 el XVII. Hegaluze Saria “por su trabajo voluntario y silencioso a favor del pueblo”. El jurado manifestó que “Herri Babesa ha estado presente cada vez que Bermeo lo ha necesitado, trabajando a favor del mismo. Son un ejemplo para las y los bermeanos”.

Por su parte, Ojanguren, ha relatado que la experiencia del voluntariado es “totalmente enriquecedora”, y además en Herri Babesa se adquieren valores como “la solidaridad, el trabajo en equipo y una gran experiencia y formación en diferentes ámbitos”. “Es importante que todos y todas trabajemos a favor del pueblo para que entre todos y todas tengamos un municipio mejor”, han subrayado.

Ibarrolaza y el miembro de Herri Babesa han animado a la ciudadanía a sumarse a Protección civil como voluntario o voluntaria porque tendrán la oportunidad de “aprender, trabajar a favor del pueblo y vivir experiencias muy positivas”. De esta manera, todas las personas interesadas deberán apuntarse en las oficinas de Berhaz (Ertzilla 6-8).

